



*Belar artifiziala aldatzeko lana amaituta asteburu honetan estreinatuko dute zelai berria Beasain KEko gaztetxoek*

*Futbol zelaiaren eraberritzearekin instalazio honek zituen gabeziei konponbidea eman zaie*

Itxura berria estreinatuko du datorren asteburuan Igartza Udal Futbol Zelaiak. Beasain Kirol Elkarteko gaztetxoek amaitu berri den belar aldatetari esker, zelai berrian jokatu diren lehen partidak jokatu dituzte. Hori dela eta, gaur aurkeztu dute jarri den belar berria Leire Artola alkateak, Adur Ugartemendia Lurraldea saileko buruak, Beasain KEko Kepa Lasa presidentek eta lanak burutu dituzten arduradunek.

Udal arduradunen asmo eta eginkizunen ardatzetako bat mantenu lanen arloa da, alegia, udal azpiegitura eta instalazioei dagozkien baliabideak baldintza eta egoera aproposan edukitzea kalitatezko

zerbitzua eskaintzeko herritarren beharrei begira.

Honela bada alkatearen esanetan, kirol zerbitzuen kalitatearen eskaintzan, Igartza futbol zelaiaren eraberritzearekin beste urrats bat eman da instalazio honek zituen gabeziei konponbidea emateko. 2002an estreinatu zenetik badira 20 urte esku hartze garrantzitsurik egin ez dela. Belar artifizialaren erabilgarritasuna eta bizi-iraupen egokia amaitu zela badira urteak eta honen aldaketa presazkoa da. Zelaiaren erabilera ere handitu da, bertan Beasain Kirol Elkarteko oinarriko taldeez gain, Goierri Gorriko neskak eta Caribebños softball taldeak ere erabiltzen dutelako.

Egoera kaxkarra eta duen erabilpen anitza kontutan izanik, Udalak presazkotzat izendatu zituen hobekuntza lanak. Belarra ordezkatzear gain, zelaiaren azalera handitu da, ateak eta ordezkoen aulki berriak jarri dira eta baita ureztatze sistema eta drenajea ere; argi-dorreak mugitu dira zelaiaren dimentsioa aprobetxatuz eta argiterian hobekuntzak egin dira. Segurtasuna hobetzeko harmailetako baranda aldatu, sareak indartu eta sarrera langa berria kokatuko dira.

Igartza Futbol Zelaiko belar artifiziala aldatzeko lanak Obras y Pavimentos especiales S.A. enpresak burutu ditu eta lanen kostua 499.717,52 eurokoa izan da.